



“Autoedizioak suposatzen duen lanak ez nau beldurtzen; are gehiago, zortea dakar”

Koro Benito García
Idazlea • 16

Durangok Planto mugimendua jaio da, herriko 11 auzo elkarte eta plataformaren eskutik

Durango | Udalaren gestio ereduagaz kritiko azaldu dira. • 5. orrialdea



“Egun hain berezi batean herritarrek ordezkatzeko deitu izana harrotzeko modukoa da”

Arteagaz zerikusia duen lehen esperientzia Durangon izan zuen Miguel Zugaza Bilboko Arte Ederretako Museoaren zuzendariak, Leopoldo aitaren eskutik. Harrezkero, artean ibilbide profesional oparoa izan du. Madrilgo Prado Museoko zuzendaria izan da 15 urtez, eta orain Bilboko museoan dihardu buru-belarri. Jendaurrekoetara ohituta dago durangarra, baina gutxitan ikusiko zuen bere burua gaurko txupinazo jaurtiketaren moduko ekitaldi batean.

• 2-3. orrialdea

KEPA BORDÉS

Gurutze Frades munduko triatloi txapelketan izango da, Konan

Triatloia | Triatleta iurretarrak zapatuan ekingo dio ironman distantziako probari, Euskal Herrian 18:40 direnean.
20. orrialdea



Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara **ZABALIK**

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com



**Miguel Zugaza
Miranda**
Bilboko Arte Ederren
Museoko zuzendaria
Durango | 1964

“Profesionalki, Durangoren inguruan trebatu naiz”

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Kazetaria grabagailua piztera doala, Kirmen Uribe idazlearen deia jaso du Zugazak. Durangoko txupinazoaren harira, ANBOTOK elkarrizketa egin behar diola aurreratu dio. Ondarroarrak Bilboko txupinazoa jaurti zue-
nez, aholkua eskatu dio Arte Ederren Museoko zuzendariak. “Laburra eta umoretsua izan dadila”, erantzun dio idazleak. Hamaika aurkezpen eta agerralditan aurpegia ematera ohituta dago Zugaza, beti ere erakunderen baten izenean. “Oraingoan nire buruaren izenean berba egitea tokatzen zait, eta horregatik nago urduri”, aitortu du durangarrak.

Txupinazoa jaurtiko duzu. Ardura handia da hori.

Oso eskertuta nago nigan pentsatu dutelako. Egun hain berezi batean herritarrak ordezkatzeko deitu izana harrotzeko modukoa

da. Ardura ere bada. Txapligoa botatzea baino ez zela uste nuen, baina zer edo zer esan behar da.

Oso lanpetuta ibili zara azken asteetan. Pentsatu duzu mezurik?

Egia esan, oso zaila da. Jende asko gerturatzten zait zer esango dudana galdetzeraz.

Zelan bizi dituzu sanfaustoak jaien erdigunean bizita?

Niri, orain, gehiago gustatzen zaizkit jaiak egunez. Goizeko giroa, musika, dantzak... Zortzi urteko neskatila bat dugunez, goizeko ekitaldi guztiekin asko gozatzen dugu. Gauean irtetea gazteagoentzat dela uste dut, semeentzat esate baterako. Horiek serioago hartzen dute gaueko egitaraua (barrez).

Aurten sokamuturraren aurkako elkarretaratzea antolatu dute. Zalea zara?

Ez naiz oso zalea. Jaien tradizioa-

ren parte da eta segurtasunagaz egiten dela uste dut. Hala ere, iritzi guztiak errespetatzen ditut. **Zure ibilbide profesionalean, urte askoan Madrilén aritu zara eta**

“

Niri orain gehiago gustatzen zaizkit jaiak egunez. Goizeko giroa, musika, dantzak...”

—

munduan zehar bidaiatu duzu, baina Durangon bizitzeari utzi barik. **Profesionalki herritik kanpo egon arren, herrian bizitzen jarraitu duzu. Erabaki kontziente bat izan da?**

Gutiz kontzientea izan da. Madrilén lan egin arren, Durangon bizi izan naiz. Madrildik ere mun-



duko mila txokotara proiektatu arren, beti bizi izan naiz hemen, familia hemen egon delako. Madrilen ez bizitzea erabaki genuen. Beraz, Madrilen lanean egon naizen 15 urteotan, hona etorri izan naiz asteburuetan. Ahalegin handia izan da, niretzat baino gehiago familiarentzat, eta, batez ere, emaztearentzat. Izan ere, pertsona biren ardura hartu du bere gain.

Artearen munduan, lehen pausoak Durangon eman zenituen, Leopoldo Zugaza aitagaz. Zelan gogoratzen duzu sasoi hura?

Anaiek, beste pertsona askok eta nik neuk egindako lehen pausoak Leopoldoren inguruan izan ziren.

“

Aitak udal aretoak zaintzen jartzen gintuen anaia Juan eta biok”

—

Antolakuntzarako gaitasun itzela zuen. Laguntzeko eskuak behar zituen beti. Gogoan dut, editoriala abiatu zuenean, anaiok biltegia ordenatzen ibiltzen ginela umetan. Jesus Astigarragagaz Hitz liburutenda martxan jarri zuenean, Cambio 16 aldizkariak banatzen genituen etxerik etxe.

Zuen aitak Ezkurdiko erakusketak antolatzen zituen.

Anaia Juan eta biok udal aretoak zaintzen jartzen gintuen. Arteagaz zerikusia duen lehen esperientzia profesionala izan nuen.

Apurka-apurka ardura handiagoak hartzen hasi zinen?

Bilera argazkigintza jardunaldia antolatu zen Durangon, eta hor parte-hartze profesionalagoa izan nuen, helduagoa. Beraz, profe-

sionalki, Durangoren inguruan trebatu naiz.

Ondoren, Bilboko Arte Ederren Museora joan zinen, eta handik Madrilgo Prado Museora. Zelako urteak izan dira?

Profesionalki, urte zoragarriak izan dira. Lan intentsoa izan da, eta oso arin pasatu diren sententzioa izan dut. Madril aurretik ezagutzen nuen, Artearen Historia han ikasi bainuen. Reina Sofia Museoa ere lan egindakoa nintzen. Beraz, Madril gustuko dut eta lagun oso onak ditut han.

Bilboko Arte Ederren Museoa erakusketa inauguratu berri duzue. ABC Bilboko Museoaren alfabetoa.

Kirmen Uribe izan duzue bidelagun. Zerk inspiratu zintuen Kirmen Uribe lantaldera batzeko?

Eraikin zaharra eraberritze baten ostean berrinauguratu gura genuen. Museoa azalberritu dugu. 31 sala genituen, eta aukera bi: Artearen historialari moduan egin ohi dugun legez kronologikoki eta eskolaka egin, edo beste narratiba bat proposatu. Ildo horretatik, Kirmen beti dago museotik oso gertu. Bere nobelak museoko koadroren batetik abiatzen dira, Artetaren edo Guezalaren batetik. “Zergatik ez diguzu museoaren alfabeto bat sortzen laguntzen?”, galdetu nion. Berbak bilatu ditzakegu, eta horiek dira gure artelanak aurkezten dituztenak. Egia esan, esperientzia oso interesgarria izan da proiektuan parte hartu dugun guztiontzat, eta baita publikoarentzat ere. Museoko bildumaren berezitasunak eta kalitatea eza gutzen laguntzen du. Era berean, arteaz gain beste istorio batzuk ere badituela erakusten du arteak. Artera sartzeko beste ate batzuk erakusten ditu. Areto bakoitza letra bat da. Letra horregaz berba bat proposatzen du, eta areto bakoitza museoaren erakusketa bat da. Kir-

meni oso eskertuta nago. Gainera, alfabeto honen inguruko liburu zoragarri bat idatzi du.

“

Bilboko Arte Ederren Museoak 14.000 obra ditu. Kutxa txiki batean sartuta dagoen museo handi bat da”

—

“

Euskal Herrikoa artearen eszenatoki interesgarrienatariko bat da European”

—

Erakusketa inauguratu duzue, eta hurrengoa prestatzen ari zarete, azarorako.

Hilabete barru ildo kronologiko eta akademikoa duen erakusketa bat inauguratuko dugu. Euskal artearen eta praktika artistikoen errepaso bat izango da azken 50 urtean. 68aren ostean deitzen da eta derrigorrezko errepaso bat da Bilboko Museoaren testuinguruan. Museoa agente aktibo bat izan da Euskal Herriko arte garaikidearen garapenean. Oso ilusionatuta nago museoak arteaz proposatzen duen ikuspuntuan aurrera egiteagaz. Museoa ez dadila ulertu bakarrik atzera begirako ikuspuntua edo ikuspuntu historikoa duen leku bat legez, baizik eta gaur eguneko ere lantzen duena.

Mikel Onandia historialariak erakusketa honetan parte hartu du.

Lan oso zehatza agindu diogu Mikel. Lanean oso zorrotza denez,

perfekzio horregaz egiten ari da. 50 urte hauetako artearen kronologia bat egiten ari da. Ekarpen handia izango da erakusketaren katalogoan.

Urte eta erdian bizitasun handia eman diozu museoari.

Nik ez dut lan egiteko beste modurik. Arteagaz eta museoagaz lan egitea gustatzen zait. Lehengo lankideen harremanari heldu diot eta, azken proiektuan, alfabetoan, taldelana sumatzen da. Denok behar genuen hori. Neuk ere bai. Bilboko Arte Ederren Museora ez naiz etorri nire historia egitera. Lankideekin, patronatuagaz eta erakundeekin lan egitera etorri naiz, museoak dituen beharri-zanak zeintzuk diren ikusteko, etorkizunean bere ekarpena egin dezan.

Aldaketa batzuk ikusi ditugu dagoneko. Baina, zeintzuk dira epe ertain-luzerako erronkak?

Museoak espazio gehiago behar du. Bere ekintza gaitasuna gehiago garatzea behar du. 14.000 obra ditu, eta, beraz, kutxa txiki batean sartuta dagoen museo handi bat da. 2001ean erreforma garrantzitsu bat egin zuten arren, aldaketa hori hiria Abandoibarrarantza zabaldu aurretik egin zen. Beraz, ikuspuntu urbanotik ere museoa birkokatu egin behar da. Patronatuak urte amaieran onartzeko plan estrategiko bat prestatzen ari gara, eta museoaren ikuskera anbiziotsua planteatzen da. Zabal-kundea planteatzen da, bai fisiko-ki eta baita ekintzak antolatze-ko gaitasunari dagokionez ere. Arte garaikidera heltzea eta bertoko eszena artistikoagaz gehiago konprometitzea da helburua. Gaur egun, Euskal Herrikoa artearen eszenatoki interesgarrienatariko bat da European. Artistak hor dau- dela baliatu behar dugu, bultzada emateko.



Alberto Rementeria, Miguel Zugaza, Leopoldo Zugaza eta Alfonso Gortazar Ezkurdiko aretoan. DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA.



Jose Luis Zumeta, Miguel Zugaza eta Leopoldo Zugaza Ezkurdin. DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA.

Bihar 800 bat gazte elkartuko dira Gazte Eguneko bazkarian Txosnaguneari, eta 1.000 lagun batuko dira jai batzordeak antolatutako sukalki txapelketan

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

***Bihar aniztasunaren
aldeko kalejira egingo
dute elkarte ugari
bultzatuta, 18:00etan***



Urriaren 13ko paella lehiaketa jendetsua izaten da, Txosnagunean.

Jaietan parte hartzeko eta "jaiak erantzukizunez" gozatzeko gonbita egin du udalak.



Herri Akordioa aurkeztu zuten joan zen egunean udaletxe aurreko plazan.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

zuten mezua. Eraso sexistarik bako jaiak gura dituztela eta erasoak "gizarte osoaren ardura" direla esan zuten. Horregatik, erasorik ikusiz gero, deia egin zuten horiek ez onartzeko edo justifikatzeko, eta aurre egiteko. "Ez dugu erasotzailerik gura gure herriko kaleetan", adierazi zuten.

anboto
komunikabideak

**Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558**

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko urriaren 11
17. urtea - 737. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaandia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaandia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laquntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangok Planto mugimendua sortu dute 11 elkarte sozialek, eta udal gobernuari "benetako parte-hartzea" eskatu diote

"Durangoko Udalak ez ditu gure eskaerak kontuan hartzen eta ez digu entzun ere egiten", kritikatu dute elkarte eta plataformetako kideek

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Azken urteetan era askotako auzo elkarte eta plataformen loraldi bat egon da Durangon, eta bakoitzak bere arlotik plazaratu ditu bere kezka eta eskariak. Interes propioak eduki arren, esperientzia batek elkartu dituela esan dute: udalagaz eduki duten hartu-emanak sortutako "nekeak". Mikeldin parkinga egitearen aurka dagoen taldeko Ortzi Egiak esplikatu du: "Udalak ez ditu gure eskaerak kontuan hartzen eta ez digu entzun ere egiten". Bada, mugimendu berri bat sortzea erabaki dute, Durangok Planto izeneko. 11 auzo elkarte eta plataforma batu dira mugimenduan: Erabaki, AP8-Peajerik Ez, Mikeldi-Olazarane Bizilagunak, Durangoko Familiak, Aire kalitatearen inguruko plataforma, Berandu baino lehen Gorka etxera, 24 orduko Pediatria, Herria auzo elkarte, Pentsio duinen aldeko taldea, Zaratarik Ez eta Zabalduko Ditugu. Astelehenean aurkeztu zuten mugimendu berria, San Agustin kulturgunean.

Udalari "benetako parte-hartzea" eskatu diote. "Herritarren parte-hartzea sustatzen dutela diote udalekoek, baina errealitatea beste-

"Hemen gaude, gure auzo eta herriko erabaki garrantzitsuetan parte hartu nahi dugulako"

lako da: mozio alternatibo eta dekretukaden bidez gobernatzen dute", salatu du Egiak. Euretako askok mozioak aurkeztu dituzte udalean,



Durangok Planto mugimendua osatzen duten elkarteetako kideak, astelehenean aurkezpenaren aurretik ateratako argazkian.

eta ez dute ulertzen gobernu taldekoek zelan ez dituzten babestu. "Hemen gaude, gure auzo eta herriko erabaki garrantzitsuetan parte hartu gura dugulako", jarraitu du. Hala ere, udalaz aparte ere durangarren partaidetza bultzatu gura dutela diote Durangok Plantakoek, "kontzientziak astinduz" elkarlan horrek "herria gobernatzeko era aldatu dezan".


Durangoko Familiak taldeko Maria Oñateren esanetan, Durangok Planto ez da partidista, eta nabarmendu du "milaka" direla denen artean lortutako sinadurak.

Lehen ekintza, txupinazoan
Gaurko jaien txupinazoan eraman-



ALAITZ ARIZAGA
Durangoko Familiak

"HAzen sarri kexatu, eta behin bakarrik erantzun dute. Eta alkateagaz dena zen ezezkoa, ez zegoela aurrekonturik"



ANGEL MARTINEZ
Mikeldi-Olazaran

"Herritarrengana zabaltzea, horixe da gure helburu nagusia. Izan ere, jende guztia ez dago informatuta herriko arazoez"



ALBERTO SILVA
Pediatria 24 ordu

"Ume gaixo batek ez lituzke Gurutzetarrainoko 40 km-ak egin beharko. Gobernuak mozioaren aurka bozkatu zuen"

go dute aurrera lehen ekintza. Zapi berdeak jantzita egingo dituzte aldarrikapenak, eta herritarrei parte hartzeko gonbita egin diete, udaletxeko plaza berde kolorez be-

tetzeko helburuz. Azaldu dute txupinazo egunean bertan banatuko dituztela zapi berde horiek. "Gura dugun Durangoren kolorea da, berdeagoa eta jasangarriagoa", dio

Oñatek. Edozelan ere, azaldu dute ez dutela jaietako betiko zapiaren ordeko izateko asmorik, horregaz batzen den dirua JAEDen lan solidariako delako.

Ehunka lagunek mobilizazio jendetsua egin dute Durangon, arnasten duten aireari buruz informazioa eta neurriak eskatzeko

DURANGO • M.O.

Astelehenean egindako mobilizazioan agerikoa izan zen airearen gaia jende askorentzat dela kezka iturri. Ehunka lagunek bat egin zuten aire garbiaren aldeko plataformaren deialdiagaz, eta arnasten duten aireari buruz informazioa eta neurriak eskatu zituzten. "Egoera jasanezin hau ezin dugu gehiago luzatu. Zer arnasten dugun jakin gura dugu", adierazi zuten deitzaileek. Jaurlaritzak ikerketa garatu

du azken hileetan, baina oraindik ez du emaitzik eman. Aire on dela nabarmendu izan du aurretiaz.

Herriaren Eskubideak, Ahal Duguk eta Elkarrekin Podemosek

"Egoera jasanezin hau ezin dugu gehiago luzatu. Zer arnasten dugun jakin gura dugu", adierazi dute

mozioa aurkeztu dute instituzioetan, Durangaldean aire neurgailu gehiago jartzeko eta herritarrak babesteko protokolo bat eskatzeko, besteak beste. Momentuz, Durangon eta Legebiltzarrean onartu da. Bada, mozio horiek berehala praktikara eramatea exijitu dute plataformakoek. "Udalean zein Legebiltzarrean onartutako mozioak lehenbailehen aurrera eraman ditzatela eskatu gura diegu gure agintariei", azaldu dute.



Astelehenean egindako mobilizazioan jende asko elkartu zen Andra Marian.

Zornotzan alkategai nor izango den aukeratzeko prozesua hasi du EH Bilduk

ZORNOTZA • J.D.

2019ko udal hauteskundeei begira, Zornotzako EH Bilduk herritar guztiei zabalik egongo den barne-hauteskunde prozesu bat abiatu du alkategaia aukeratzeko, ohar batean jakinarazi duenez.

Hautagaiak proposatu ahal izateko zein bozkatzeko, ezinbestekoa izango da barne-hauteskundeetako erroldan izena ematea. Hasita dago horretarako epea. Ondoren, hautagaiak

Hautagaiak proposatzeko, ezinbestekoa da barne-hauteskundeetako erroldan izena ematea

proposatzeko epea urriaren 15etik 21era artekoa izango da eta hautagaien aurkezpena urriaren 22ko astean egingo dute. Hautagai bat baino gehiago egonez gero, bozketa asteburu batean izango da, azaroan.

Ibilaldiak antolatu dituzte Enkarterri, Oñati eta Markina inguruak ezagutzeko

ZORNOTZA • J.D.

12 eta 15 kilometro arteko oinezko lau ibilaldi antolatu dituzte, aurren, 'Ibiliaz ezagutu' ekimenaren barruan. Urriaren 20an eta 27an Enkarterri joango dira; azaroaren 10ean, Aulestia eta Markina ingurura, eta azaroaren 17an, Araotzera (Oñati). Izen-ematea Zelaieta zentroan egin daiteke, berandu den jola irteera egunak baino egun bi lehenagora arte.

“Zornotzako kartzelan ume asko izan ziren, bertan jaiotakoak edo amagaz sartutakoak”

Historian doktorea den Ascensión Badiolak Zornotzako emakumeen kartzelari buruzko hitzaldia eskainiko du gaur

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Historian doktorea den Ascensión Badiolak (Bilbo, 1961) hitzaldia eskainiko du Zornotzan. Badiolak Zornotzako emakumeen kartzela izango du berbagai gaur, 19:30ean, Zelaieta Zentroko auditorioan. Bere ikerketan aurkitutako datuak ezagutaraziko ditu.

Zergatik ikertu zenuen Zornotzako kartzelaren historia?

Doktore tesia egiteko, Deustuko kontzentrazio-esparruan zer gertatu zen ikertzen hasi nintzen. Avila, Guadalajara... toki askotako artxibategiak bisitatu nituen. Kontua da bidean galdera asko sortzen hasi zitzaizkidala, eta ikerketa eremua zabaldu nuen. Zornotzaren kasuan, datuak desagertuta daude. Edo soto-aren batean galduta edo desklasifikatu barik daude. Batek daki.

Orduan, zelan batu zenuen kartzelari buruzko informazioa?

Kartzela batzuetan aurkitutako informazioa, preso testigantza, beste historiagile batzuen ikerketak... handik eta hemendik ateratako datuetatik ondorioztatu behar izan nuen nolakoa zen Zornotzako kartzela eta han gertatutakoa.

Noiztik nora egon zen zabalik?

Eraikina 1931koa da. Seminario moduan hasi zen, baina gerra zibillean gerrako ospitale bihurtu zuten. Ofizialki, 1940ko martxoan izendatu zuten emakumeen kartzela, baina 1939tik modu horretara

erabiltzen ari ziren. Bilboko kartzela beteta zegoen eta Zornotzako hura arintzeko erabili zuten, beste batzuekin batera. 1947ko azaroan itxi zuten.

Badakigu zenbat emakume egon ziren preso Zornotzan?

Zornotzako kartzelan baldintza-peko askatasuna lortu zuten 941 emakumeren izen-abizenak batu ditut. Horrek ez du esan gura horiek izan zirenik denak. Orduan ohikoa zen presoak kartzela batetik bestera lekualdatzea, eta, horien kasuan, Zornotzatik igaro arren, ez dago daturik.

Nongoak ziren?

Penintsula osoko jendea egon zen. Harrigarria bada ere, euskaldunak gutxiengoak ziren. Presoak euren jaiotekutik urrun espetxeratzea zen Erregimenaren politika. Beraz, emakume euskaldunak beste kartzela batzuetara eramaten zituzten. Zornotzan umeak ere egon ziren?

Bai, emakumeen seme-alabak ziren. Gizonen kartzelekin konparatuta, horixe da dagoen alderik nabarmenena. Ume asko jaio ziren Zornotzako kartzelan. Hiru urte egitean, lege, amarengandik banandu eta eraman egiten zituzten. Adopzioan ematen zituzten, edo Erregimenaren tutoretzapeko zentro erlijiosoetara edo emakumearen senitartekoren batengana eramaten zituzten. Ume batzuk kartzelan jaiotakoak ziren eta beste batzuk euren amagaz heldutakoak.



Zornotzako emakumeen kartzelako irudia. 1947an itxi zuten kartzela.



Kartzelan eta kontzentrazio-esparruen gaineko tesia egin eta liburua kaleratu du Badiolak.

Ondarearen jardunaldiak Durangaldean

- **ELORRIO:** 'Ahoz aho' pasealdi gidatua. Urriak 13, 20 eta 27, 11:00etan
- **IURRETA:** 'Emakumea eta baserrietako lanak'. Urriak 21, 10:30ean eta 12:30ean.
- **ABADIÑO:** 'Sorginen azken hegaldiaren itzalera'. Kepa Junkera. Urriak 19, 19:00etan. Gerediagako foru-zelaia.
- **BERRIZ:** 'Emakumeak palazioan eta komentuan'. Urriak 27, 10:00etan eta 12:30ean
- **MAÑARIA:** 'Errose Bustintzaren ipuinak'. Urriak 20, 16:30ean eta 18:00etan
- **MALLABIA:** 'Emakumeak, baseritik palaziora'. Urriak 27, 16:00etan eta 18:00etan
- **IZURTZA:** 'Emakumeak, baserrien arima'. Urriak 20, 10:30ean eta 12:30ean.
- **OTXANDIO:** 'Izenik gabeko emakumeen historia'. Urriak 28, 10:00etan eta 12:30ean.

Informazioa eta erreserbak (leku kopuru mugatua):
673 005 981 - ejardunaldiak@gmail.com



bbt18
Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2018

www.bertsosazale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

AMOREBIETA-ETXANO
Urriaren 21ean, domeka, 17:00etan, Zornotza Aretoan
Aitor Esteban Etxebarría, Ander Elortegi Garatea, Ander Ucelay Aristi,
Inazio Vidal Gurrutxaga, Txaber Altube Sarriónandia eta Unai Mendiburu Valor.

Antolatzailea


Babesleak




Laguntzailea


Herritarren 17 testigantza gehituko dituzte Argentinan aurkeztuko duten kereilan

Gerra zibilean eta frankismoan giza eskubideen urraketak jasandakoei ahotsa emateko, biktimen arretarako bulegoa zabaldu zuten udaletxean, eta han jaso zituzten testigantzak

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Aurrera doa gerra zibilean eta frankismoan otxandiarrek jasan-
dako giza eskubideen urraketak
auzitegiara eramateko asmoa.
Maiatzean eta ekainean biktimen
arretarako bulegoa zabaldu zuten
udaletxean, testigantzak jasotzeko.
Epealdi horretan, 17 herritarren
salaketak jaso zituzten.

Datozen hileetan, herritarren
testigantza horiekin, aurretik batu-
tako beste batzuekin eta urteetan

**Argentinan hasitako
prozeduran ez ezik
Durangoko Auzitegian ere
aurkeztuko dute kereila**

pilatutako dokumentazioagaz
txosten bat prestatuko dute. On-
doren, Argentinan zabaldu den
prozedurara batu, eta han kereila
bat aurkeztuko dute. Durangoko

Auzitegian ere aurkeztuko dute
beste kereila bat.

Andikona 36 lantaldea

Otxandioko Udalaren eta Andikona
36 lantaldearen arteko elkarlanari
esker aurrera daramaten egitasmoa
da. Andikona 36 lantaldeak 14 urte
daramatza Andikonako bonbar-
daketak eta gerra zibilak herrian
eragindako kaltea aztertzen eta
azaleratzen.



Maiatzean eta ekainean bulegoa zabaldu zuten udaletxean, testigantzak jasotzeko.

Gremioen gida

anboto

Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Zurgintza

leike aroztegia &
diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA



Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza



946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

Garbiketa

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak


Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

“Bertako produktuen kontsumoa noraino heltzen den eta noraino heldu ahal den esango digu ikerketak”

Durungaldeko Elikadura Plan estrategikoa osatzeko prozesua hasi du Urkiola Landa Garapenerako Alkartearak



Urkiola Landa Garapenerako Alkartearen kudeatzailea da Totorika.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Elikadura osasuntsu eta iraunkorren balioetan oinarrituta, etorkizunerako plan estrategikoa osatzen dabil Urkiola Landa Garapenerako Alkartea. Elhuyar aholkularitzak, Gaindegia behategiak eta Sorland agentziak garatuko dute teknikoki, eta eskualdeko hainbat eragileren partaidetzak zentralitatea edukiko du prozesuan. Urtea amaitu aurretik emaitzak jasotzea aurreikusi dute. Horren guztiaren berri eman du Juan Mari Totorikak, Alkarteko kudeatzaileak.

Nondik dator elikadurari buruzko plangintza bat sortzeko asmoa?

Urkiola Landa Garapenerako Alkartearen barruan eskualdeko udalak eta lehen sektoreko hainbat elkarte daude. Azken legealdian, turismoaren eta elikaduraren estrategiak zelan garatu aztertzen ibili dira udalak, eta adostu dute alkartea dela horretarako erakunde egokia. Elikadura mahai bat ere sortu da, instituzioekin, eskolekin, katering enpresekin, produktoreekin, sindikatuarekin... Abenduaren 31ra orduko amaituta egon beharko da plangintza.

Kontsumitzaileen ohituretan aldaketa bat bultzatzea da planaren helburuetako bat.

Elikadura aipatzen dugunean, ka-

tea produktoreekin hasten da eta hondakinen kudeaketagaz amaitu. Kate horretan hainbat agentek parte hartzen dute, eta gure estrategian denak hartuko ditugu kontuan. Elikadura sostengarri bat garatu gura baduzu, produktoreak parte garrantzitsua dira, baina kontsumitzaileak ere bai. Batak bestea barik ezin du katerik sortu. Beraz, gure asmoa da jaten duguna ahal den neurrian eskualdean produzitzea. Badakigu hainbat zailtasun dugula, kontsumitzaile

“Kateringekin bitartekari lanetan gabiltza, bertako produktuak hornitzaileen artean sartzeko

asko dugulako eta ekoizleak ez hainbeste. Ikerketa honek bertako produktuen kontsumoa noraino heltzen den eta noraino heldu ahal den esango digu. Kontsumoa eta ekoizpena orekatuta joan behar direnez, batak gora egiten badu besteak ere egin beharko du.

Baina, horretarako, nekazaritza eta abeltzaintzako arloak sendo egotea beharrezkoa izango da. Lehen sektorea gaztetu egin behar dela azaldu

duzue plana aurkezteko oharrean.

Azken urteetan ez da egon erreleborik, eta gero eta ekoizle gutxiago ditugu. Ez dago desagertzeko arriskuan, baina egoera oso larria da. Hainbat esplotazio zarratu dira eta ez da ordezkorik egon. Lehenik eta behin, sektorea prestigiatu beharko dugula uste dut. “Balio ez duena baserrian geratzen da” esaten zen lehen; horrek ez du zentzurik gaur egun. Baserritarra izateko, oso ondo trebatuta egon beharko duzu eta enpresari ona izan. Bestetik, bokazio kontua da, gustatu egin behar zaizu. Batzuek ez dute lan ordurik, ezta oporrik ere, euren artean antolatu ezik. Bestalde, esplotazioak handitzeko, lurra behar da. Faktore asko daude eta denak hartuko dira kontuan plangintzan.

Azken urteetan, eskola jantokietan bertako eta sasoiko protokutuak eskaintzearen alde mugimendu indartsua sortu da Durangaldean, Berton Bertokoa izenekoa. Gaia katering enpresekin koordinatzen zabilzate, ezta? Eskualdeko elikadura eredu aldaketa handia ekarriko luke...

Bere momentuan katering enpresek zerbitzuaren lehiaketa irabazi zuten, eta eurek eduki dezaketen borondatearen menpe dago menuetan bertako produktuak sartzeko ala ez. Ez dago gure esku. Gu baserritarrekin berbetan gabiltza, eta bitartekari lana egiten katering enpresekin, bertako produktuak euren hornitzaileen artean sartzeko baldintzak adosten saiatzeko. Bide bat hasita dago, baina gauzak ez dira errazak, ekoizleek euren burua antolatu beharko dutelako eta gero baldintzak negoziatu katering enpresekin.

Javier Crespok hartuko du Jose Luis Navarroren lekukoa Abadiñoko Independienteak alderdian

2019ko udal hauteskundeetan independenteen hautagaia izango da Crespo, Gizarte Ekintzako zinegotzia dena gaur egun

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Abadiñoko Gizarte Ekintzako zinegotzi Javier Crespo izango da Talde Independientearen (AI) hautagaia 2019ko hurrengo udal hauteskundeetan.

Navarro finkatutako ildotik jarraituko du Crespok, “herriaren alde irmo lanean”

deetan. Berak hartuko Jose Luis Navarroren lekukoa Abadiñoko Independienteak alderdian.

Joan zen irailean iragarri zuen Navarro ez zuela bere burua berriro ere alkategai moduan aurkeztuko. Orduan azaldu zuenez, “bere

taldeko gazteei bidea emateko”. 20 urte egin ditu Navarrok Abadiñoko Udalean. Hiru legealdi alkate moduan egin ditu, eta, aurretik, zortzi urtez zinegotzia izan zen.

Javier Crespo 45 urteko abadiñarrak hartuko dio lekukoa. Udaleko Gizarte Ekintzako buru izan da azken zazpi urteotan. Prentsa oharrean nabarmendu dutenez, “esperientzia handia” hartu du udal kudeaketan, zinegotzi moduan jardundako legegintzaldi bietan. Era berean, ibilbide luzea du egina boluntario moduan, hainbat elkarte sozialetan. Alkatetza lortuz gero, Jose Luis Navarroren urratsen atzetik joan gura luke Crespok. Harek finkatutako ildotik jarraituko du, “herriaren alde irmo lanean, udalerriak aurrera egiten jarrai dezan”.



Javier Crespo 45 urteko abadiñarra izango da Alren hautagaia

Udaltzain berri biren etorrerak taldea egonkortu duela dio Jose Luis Navarrok

ABADIÑO • M. ZUAZUBISKAR

Abadiñon libre zeuden udaltzaingoaren postu biak bete dira dagoeneko. Udalak jakitera eman duenez, udaltzain berri biak hasita daude lanean, eta egun zazpi agentek eta udaltzain buru batek, —orain bete barik dago plaza— osatzen dute taldea. “Udaltzain bi hauen etorrerak plantilla egonkortzea ekarri du”, adierazi du Jose Luis Navarro alkateak. Bestalde, udal arauak zorrotzago betearaziko dituztela jakitera eman dute.

Zazpi agentek eta udaltzain buru batek osatzen dute Abadiñoko udaltzaingoa

Elorrioko Udalak sustatuta, martxan dago auto elektrikoak kargatzeko lehenengo puntua

Elorrioren jarri dute gunea, Nizeto Urkizu kaleko aparkalekuan, eta Durangaldean ipini duten lehenengoa da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Mugikortasun jasangarria sustatu eta auto elektrikoen erabiltzaileen beharrak asetzeko asmoz, Elorrioko Udalak mota horretako karga puntua instalatzea erabaki du. Nizeto Urkizu kaleko aparkalekuan jarri dute kargatzeko puntua, eta martxan dago dagoeneko. Prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, eskuragarri dagoen eredu Ibilbox200x2 izenekoa da.

Auto elektrikoen erabiltzaileen beharrak asetzeko asmoz jarri dute kargatzeko puntua

Ibil enpresagaz batera eraman dute aurrera ekimena, eta proiektu horri esker auto bi batera kargatu ahal izango dira Elorrioren. Udaletik esan dutenez, kargatzeko puntuan hargune bi daude,

bakoitza 7,4 kW-ko potentziaduna. “Elorrioren jasangarritasunak arduratzen gaitu, eta, beraz, gure esku dagoen guztia egingo dugu alderdi honetan hobetzen joateko. Egun batzuetatik hona Durangalde

Auto bi batera kargatu ahal izango dira Nizeto Urkizu kaleko aparkalekuko puntuan

deko udal batek sustatutako auto elektrikoentzako lehen erreforma puntua daukagu. Aurrerantzean ere norabide honetan jarraituko dugu lanean”, adierazi du Idoia Buruaga Elorrioko alkateak.



Dagoeneko martxan dago, Elorrioren, auto elektrikoak kargatzeko puntua.



Zerbitzua hobetzeko asmoagaz, buzioa jarri dute Zaldibarko liburutegian

ZALDIBAR • A.M.
Zaldibarko udal liburutegiaren kanpoaldean buzoi bat jarri dute, liburuak eguneko edozein momentutan itzuli ahal izateko. “Buzoi honegaz, eskaintzen den zerbitzua hobetzea da gure helburua”, adierazi du Eneritz Azpitarte alkateak.
Bestalde, Chillidaren inguruko tailerra antolatu dute Zaldibarko udal liburutegian, urriaren 19rako. Bost urtetik gorako haurrentzat izango da.

Mikologiari buruzko egun biko tailerra egingo dute hilabete honetan Berrizen

BERRIZ • M.ZUAZUBISKAR
Perretxikoak identifikatzeko oinarritzako gakoak jaso gura dituzten herritarrentzat mikologia tailerra antolatu dute Berrizen. Urriaren 23an eta 25ean egingo dituzte tailerrak, 19:00etatik 20:30era bitartean, eta parte hartu gura dutenak urriaren 21a baino lehen eman beharko dute izena. Interesdunek 946 827 860 telefono zenbakira deituta edo kultura@berriz.eus helbidera idatzita egin beharko dute izen-ematea.

Jabier Bereziartua eta Jose Antonio Martinez omendu dituzte nagusiek

GARAI • MARKEL ONAINDIA
Irailaren 29an egindako ospakizunean bazkiderik zaharrenak omentzeko ohitura du Nagusien elkarteak. Aurtun, Jabier Bereziartua eta Jose Antonio Martinez izan dira omenaldia jaso dutenak. Karta txapelketetako sariak ere banatu zituzten bertan. Briskan Lazaro Milikua eta Ana Mari Agirregomezkorta izan ziren garaile; tutean, Agirregomezkorta eta Juanxu Larruzea; eta musean, Jabier Bereziartua eta Jose Areitio.

Lan mundua euskalduntzeari buruzko jardunaldia egingo dute Iurretako Lanbide Heziketa ikastetxean



Ikastetxean hainbat jardunaldi garatzen dituzte urtean zehar.

IURRETA • MARKEL ONAINDIA
Datorren martitzen goizean (urriak 16), Hizkelan izeneko jardunaldia egingo dute Iurretako Lanbide Heziketako ikastetxean, *Heldu Euskarari Lanean* lemapean. Lan mundua eus-

Lan mundua euskalduntzearen esperientziak aurkeztuko dituzte

kalduntzearen esperientziak aurkeztuko dituzte, eta baita ideia berri eta praktika onak partekatu ere, besteak beste. Euskaraz lanean ari diren edo euskaraz hasi gura duten enpresa, lantoki, LHko ikastetxe edo erakundeentzat zuzenduta dago jardunaldia. Lanbide Heziketako ikastetxe eta enpresa askok euskaraz aritzeko konpromisoa hartu dute, eta hartzeko asmotan dira beste asko ere. Horien pausoak ezagutu ahaliko dira.
Lanbide Heziketako Sailburuordetzako eta Laneki elkarte teko ordezkariak, Lorea Bilbao Bizkaiko euskara diputatuak eta euskaragaz harremana duten hainbat enpresa eta erakunde parte hartuko dute.

Urriko jaien barruan txosna jarri gura dutenentzako izen-ematea hasi dute

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko urriko jaiak gero eta gertuago daude. Azken asteburuan izango dira aurten, urriaren 26an, 27an eta 28an. Urtero legez, ekitaldiz betetako hiru egun izango dira, eta ez da kalera irteteko aitzakiarik faltako. Jaien harira, Mallabiko Udalak txosnak jartzeko aukera eskaintzen die herriko elkartei egun horietan, beti ere baldintza batzuk betez gero. Dagoeneko hasita dago txosnak jartzeko

Hilaren 19an amaituko da epea urriko jaietan txosna ipintzeko eskaera egin ahal izateko

izen-ematea, eta urriaren 19an amaituko da.

Herriaren alde lan egiten duen taldea izatea da elkarteek bete behar duten baldintzetako bat urriko jaietan txosna jarri ahal izateko.



Zakarez betetako zabor poltsak aurkitu dituzte Saibiko ehiza pasean

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Hegaztien paserako ehiza lerro bat dago Saibin. Urkiola eta Eskuagatx ia lotzen dituen lerroa da. Lerro hori garbi mantentzen dute ehiztariek, beste lan batzuen artean. Urtero legez, orain hiru bat aste, hegaztien paserako denboraldia hurreratzeko zihen, ingurua garbitu zuten. Joan zen astean azkeneko atonketa lanak egiteko Akelarre izeneko ingurura bertaratu zirenean, zakarez betetako hiru zabor poltsa aurkitu zituzten. Etxebizitzetatik urrun dagoenez, norbaitek hara eraman eta utzitakoak direla diote ehiztariek. "Ehiztariei mesede egiteko behintzat ez da izan", adierazi du Mugarra ehiza elkarteko Juanlu Alberdik.

Eguaztenean Euskaraldia aurkeztuko dute Izurtzan eta lokala inauguratuko dute Durangon

Euskaraldia gero eta presenteago dago kalean; gaur, esaterako, Durangoko txosnaguneko txupinazoa jaurtiko dute Euskaraldiko kideek



Durangoko lokal berria inauguratzen dutenetik, durangarrek bertan eman ahal izango dute Euskaraldirako izena.

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Izurtzan motorrak berotzen hasiko dira Euskaraldiari begira. Urriaren 17ko eguaztenean, 19:00etan, aurkezpen ofiziala egingo dute udaletxeko udalbatzar aretoan. UE-MAko ordezkari bat bertaratu da Euskaraldiaren gaineko argibideak eskaintzera.

Egun horretan, Ahobizi eta Belarriprest izateko inskripzioa ere egin ahal da. Izena emateko hurrengo aukera urriaren 27an eta 28an izango da. Egun horietan,

eguerdian, postuak jarriko dituzte udaletxe pareko plazan.

Elorrioren eta Durangon

Elorrioren ere izen-emateak aurrea darrai eta gaur zein domekan postuak jarriko dituzte. Gaur,

Izurtzako plazan Euskaraldiko postu bat jarriko dute urriaren 27an eta 28an izena emateko

Gaur arratsaldean eta domeka eguerdian postuak ipiniko dituzte, Elorrioren, izena emateko

19:00etatik 20:30era egongo dira, Zubiartz eta Portalekua artean. Domekan, 12:30etik 14:00etara jarriko dute mahaia, plazan.

Durangon, agenda bete-betean daukate Euskaraldiko sustatzai-

leek. Gaur, 21:00etan, txosnaguneko txupinazoa botako dute eta datorren asteko eguaztenean lokala zabalduko dute Durangoko Artekale kalean. Hurrengo egunetik aurrera, gura duten durangarrak bertara joan ahal dira izena ematera.

Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra izango da. Herritarrek aktibatzea du helburu, euskara erabil dezaten. Hizkuntza-ohiturak aldatzea eta inertzia apurtzea helburu duen ariketa soziala da.

Anbotope tabernaren kudeaketa lehiaketara ateratu du Atxondoko Udalak

Lehiaketa publikoa irabazten duenak bost urtez hartuko du Arrazolako eskola zaharreko tabernaren ardura

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2016an Atxondoko herritarrek Arrazolako eskola zaharrean taberna eta denda txiki bat egitea erabaki zutenetik, eraikina egokitzeko ibili dira. Joan zen barikuan, urriaren 5ean, Atxondoko Udalak beste pauso bat eman eta Arrazolako Anbotope tabernaren ustiaketa lehiaketara eraman zuen.

Lehiaketako baldintza-agiria udalaren webgunean dago ikusgai, eta urriaren 22ra arte aurkeztu ahal izango dira eskaintzak.

Atxondoko Udalak ezarritako baldintzen arabera, lehiaketa publikoa irabazten duen esleipendunak bost urtez hartuko du tabernaren ardura, beste bost urtez luzagarria izan daitekeena.



Tabernaren eta denda txiki baten ardura izango du kudeatzaileak.



'ERAZ' aldizkaria.

'Boni' jaietako pregoilari izan zenekoa, orain 25 urte

Bonik 70 urte inguru eman
zituen gozokiak saltzen Andra
Mariko elizpean, beti adeitsu.

Boni eta martxanteren ome-
nez, Andra Marian oroigarri
bat ezartzea proposatu zuen iaz
EH Bilduk, eta udalak oniritzia
eman zion. Oraindik ez dute
oroigarria jarri, baina, hala ere,
herritarren memorian jarrai-
tzen du *Bonik*. **M.O.**

Dani
Maeztu Perez
EH Bildu



Orain dela aste batzuk, Cadizen dagoen ontziola handi bateko langileak kalera irten ziren, bertan egiten ari ziren gerra-ontziek suposatzen zuten lan karga arriskuan baitzegoen. Espainiako gobernuak aste horretan iragarri zuen Saudi Arabiara ez zituela bonba gehiago salduko eta, horri erantzunez, gobernu arabiarak ezagutzera eman zuen Cadizeko ontzioletan erakitzen ari ziren ontziak ez zituela nahi. “Bakearen edo ogiaren artean aukeratzera behartzen banaute, ogia aukeratzten dut”, Cadizeko alkatearen esaldi zelebre horrek laburbiltzen du istorioaren bukaera, alegia, gaurkoz ogia. Eredutalariak kapitalistak gure kontraesanen ispiluaren aurrean jartzen gintuen enegarrenez; kapitala ala pertsonak.

Gurera etorrita, astelehen honetan, Durangon arnasten dugun airearen kalitatea aldarrikatzen zuen manifara joan baino lehen, udal gobernuako kide batek aurpegiratu zidan: “zer eskatuko duzue ba, papelera eta fundizioak itxia?” Momentuz, informazioa eta gardentasuna eskatzen ari gara. Hori bai, ziurrenik taberna edo kuadrilletako konbertsazioetan antzerako sasi argudioak entzungo zenituen. Soilik espero dut, astelehenean kalean geundenok eta arnasten dugun kiratsaz nazkatuta gaude-nok honako hau argi edukitzea: agintariek kapitalaren edo osasunaren arteko aukeraketan jartzen bagaituzte, osasuna kapitalaren gainetik dagoela, gaurko ogiak sekulako gosetea ekar dezakeelako bihar.

Dendak Bairen eskutik, Durangoko dendak apainduko dituzte jaietarako

Durango | Dendak Bai merkatari elkarteak informatu du Durangoko hainbat denda apainduko dituztela jaietarako, datozen egunetan herrian egongo den giroagaz bat egiteko. JAEDen zapiak oinarri hartuta apainduko dituzte erakusleihoak. Bestalde, elkarteak 690 euro oparituko ditu deskontu-txarteletan. Tortilla txapelketan eta mozorro lehiaketan banatuko diren sarietako batzuk izango dira txartel horiek.

Tabira Musika Bandak kontzertua
eskainiko du urriaren 14an, Durangon

Durango | San Fausto jaien harira, Tabira Musika Bandak urteroko kontzertua eskainiko du domekan, 13:00etan. Bandako kideek jakitera eman dutenez, Charles Gounod konpositorearen Fausto obra joko dute urriaren 14ko ekitaldian. Bestalde, kontzertua Luis Orduña Ridruejok gidatuko duela adierazi dute.

Amatasuna berbaigai izango dute Zornotzan antolatu duten tailerrean

Zornotza | Zornotzako Udaleko Berdintasun Sailak amatasuna-
ren inguruko tailer bat antolatu du. Ama izan diren emakumeei
amatasuna bizitzeko leku desberdin bat eraikitzen laguntzea eta
tresnak eskaintzea da ikastaroaren asmoa. Tailerra urriaren 24an
eta 31n eta azaroaren 7an izango da, 17:30etik 19:30era bitartean.
Izen-ematea urriaren 15a baino lehen egin beharko da.



Ibaizabal eta Zaldu erreketatik 2.700 kilo zabor atera ditu Abadiñoko Udalak

Abadiño | Uraren Euskadiko Agentziagaz sinatutako hitzarmen baten bidez, Abadiñoko Udalak 2.700 kilo zabor atera ditu Ibaizabal eta Zaldu erreketatik. Udalak jakitera eman duenez, erreka alderik zikinenak garbitu dituzte: Muntsartzeko merendero ondoko aldea, Zelaietatik Astolako industrialdera bitarteko erreka eta Matienako zonalde bi. Hamabost egun eman dituzte garbiketa lanetan.

Prentsa oharrean azaldu dutenez, denetariko zaborra atera dute: supermerkatuetako orgak, gurpilak, altzariak, jarlekuak, plastikozko poltsak eta abar.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9. • IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzirik kide baten izenezan sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

uxarte

SAGARDA OGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815

www.uxarte.com



ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ

Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

CERAMICAS
MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Chimeneas
Cerámicas
MACOBER

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua Industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak




Betikoak
flexografia

946 202 241


Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Beldar goSetia

Zenbat hosto jango ditu beldarrak bere kuskuan sartu aurretik? Horixe jakin nahi baduzu, beldarra dagoen tokitik abiatu eta, hostoz hosto, kuskuraino heldu behar duzu, ezkerrera, eskuinera, gora edo behera mugituz (sekula ez, diagonalean).



Sartu
www.plazanbazan.eus
web atarian eta
denbora-pasa hauen erantzunekin
batera beste hainbat jolas aurkituko
dituzu.



Basoan galdua

- 1 Zenbat otso ikusten dituzu?
- 2 Eta zenbat untxi?
- 3 Ba al da sugerik? Zenbat?
- 4 Ba al da trikurik? Zenbat?
- 5 Ba al da txoririk? Zenbat?
- 6 Ba al da arratoirik? Zenbat?
- 7 Eta azeririk?



Aurki itzazu bi irudi
hauen artean dauden
zazpi diferentziak.



Eskuinean dituzun burbulla edo borobiltxo horiek beheko irudi nagusitik hartuak ematen dute, baina egia esanda, bederatzitik bakar bat duzu zuzena. Zein da?





Boluda Kabareta

TEATRO ZIKLOA
DURANGO :: Urriak 18

Plateruenean izango da Boluda Kabaretaren denboraldi berria

Boluda Kabareta Sapuetxen egin izan da orain arte, eta orain Plateruenera lekualdatu dute. Hilean behin kabareta izango da kulturguneko protagonista. Horrela, urriaren 18an, 20:00etan hasita, umorea, zirkua, musika, dantza eta abarrak nahastuko dira Plateruenean.

Urriaren 11n

ELORRIO musika
Toc eta Lukiek taldeen kontzertua AnteneON ekimenaren baitan, 22:30ean, Ateneoan.

DURANGO jaiak
Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan, 19:00etan.
Txupinazoa udaletxeko plazan, 20:00etan.
San Fausto jaiak.
Txupin jaurtiketa, 21:00etan, txosnagunean.
Kontzertuak: Ikarass, Worth It eta Vinagre de Moderna, 23:30ean, txosnagunean.

Urriaren 12an

DURANGO magia
'5' magia ikuskizuna, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO jaiak
San Fausto jaiak.
Sukalki txapelketa Landako Gunean, 08:00etan.
Artisau azoka, 12:00etan, txosnagunean.
Txupinazo txikia, 12:30ean, udaletxean.
Gazte bazkaria, 14:30ean, txosnagunean.
DJ gaua Ezkurdin, 22:00etan.
Kontzertuak: Pinpilinpussies, Bad Sound System eta Dj Zenn, txosnagunean.

ZORNOTZA jaia
'Mangamore' jaialdia.
Issho Daiko kontzertua, 18:30ean, Amorebieta IV frontoian.
Spicy Raman dantzak eta DJ Neno, 19:00etan, Zubiondo parkean.
Behotsik Bilbao Orkestra, 20:00etan, Amorebieta IV frontoian.



ELORRIO mendia
Leongo mendiak, asteburupasa Erdella mendizale elkartearen eskutik.

Urriaren 13an


DURANGO musika
Tabira musika bandaren kontzertua, 13:00etan.

ELORRIO jaiak
San Fausto jaiak. Meza eta hamaiketakoa.

DURANGO jaiak
San Fausto jaiak.
Paella txapelketa San Fausto auzoan, 11:00etan.
Paella txapelketa, 12:00etan, txosnagunean.
Erreka jaitsiera, 17:00etan, Pinondon.
Garagardo dastaketa, 19:00etan, txosnagunean.
Eromeria Luhartz taldeagaz, 19:00etan, Andra Marian.
Kontzertuak: Nebrashka, Drumkopters eta Zirkinik Bez, 22:00etan, txosnagunean.
Kontzertua Reincidentes taldeagaz Ezkurdin, 23:00etan.

ZORNOTZA jaia
Mangamore jaialdia.
Taiko tailerra, 12:00etan.
Sushi tailerra Cristina Sombraygaz, 12:00etan.
Garuna Effect zientzia ikuskizuna, 12:30ean.
Cosplay lehiaketa, 13:00etan.
Game In kontzertua, 18:15ean.
Igor Cerainen piano kontzertua, 12:30ean.
Cosplay erakusketa, 19:15ean.
Zwei kontzertua, 19:45ean.
Random Dance Spicy Ramen eta Dj Socia, 20:00etan.

ELORRIO jardunaldiak
Ahoz Aho paseo gidatua, 'Ondarea, emakumeen emaria' jardunaldien baitan, 11:00etan, Elorrioko turismo bulegoan.



Basogintza

HITZALDIA
ATXONDO :: Urriak 16

Basogintza Bizkaian, eta orain zer? hitzaldia egingo dute Atxondon, urriaren 16an, 19:00etan. Keko Alonso (Besaia, Lorekologia eta bestelako basogintza) eta Butroe Bizirik taldeko Cristian Lertxundi izango dira hizlariak.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Ertibil bisita gidatua

ARTEA • URRIAK 18
Ertibil erakusketa ikusteko, bisita gidatua eskainiko du Durangoko Arte eta Historia museoak datorren hilaren 18an. Bisita doakoa izango da, baina aurrez izena eman beharko da 94 6030020 telefono zenbakira deituta edo *museo@durango.eus* helbidera idatzita. Pintura, eskultura, grabatuak eta argazkilaritza nahasten dira erakusketan.



Elorrioren identitatea eta migrazioa berbegai

HITZALDIAKI Migrazio fenomenoaren iturburua ezagutzeko, lan pedagogikoa egin gura dute Elorrioren. Horretarako, 'Urriko Martitzenak' dinamika jarri du martxan udalak, 'Mundutik Elorriora, Elorriotik Mundura' dinamika baita. "Migrazio fenomenoaren iturburua ezagutzeko, lan pedagogikoa egin gura dugu, enpatia sortzeko lana, aurreiritzi eta estereotipoak deseraikitze lan bat, bizilekua aldatzeak sortzen dituen arazoaren gaineko hausnarketa lan bat", aitortu du Txus Arrieta Gizarte arloko zinegotziak.

Hitzaldi zikloa urriaren 9an hasi zuten, martitzenean, Mario Zapata soziologoaren berbaldiagaz. Zapataren hitzaldia-ri beste hiru berbaldik emango diote jarraipena.

‘Urriko martitzenak’

Urriak 16, Jon Maiaren berbaldia, "Berriak jaio ginen", 19:00etan, Elorrioko udaletxean.

Urriak 23
Amekadi Elkarrekin gidatuta, 'Zurumurrak ekiditeko tailerra', 19:00etan, Iturri Kultur Etxean.

Urriak 30
Amekadi Elkarrekin gidatuta, 'Zurumurrak ekiditeko tailerra', 19:00etan, Iturri Kultur Etxean.

Urriaren 14an

ZORNOTZA jaia
Mangamore jaialdia.
Aikido erakustaldia, 12:00etan.
Fideo japoniarren tailerra Cristina Sombraygaz, 12:00etan.
Garuna Effect zientzia ikuskizuna, 12:30ean.
Luna Dangelis eta Deiak youtuberren hitzaldia, 13:00etan.
Game In kontzertua, 18:15ean.
Igor Cerainen piano kontzertua, 14:00etan.
Karaoke lehiaketa, 19:15ean.
Yumino kontzertua, 19:45ean.
Sushi dastaketa, 18:00etan.

DURANGO jaiak
Nagusientzako bazkaria
Landako Gunean, 14:00etan.
Herri bazkaria San Fausto auzoan, 14:00etan.

Urriaren 15ean

ABADIÑO deialdia
‘Abadiñoako emakume baseritarren topaketa’, 17:30ean, Mendiola Errekatxo auzo elkartearen.

Urriko agenda



15 16 17	“HERRI BIBLIOTEKA” 100 urtez Gloria, Fuerte gure memorian Maiztegi Herri Eskolako Lko 3-6 mailako ikasleentzat hitzartutako saioak
15	“HERRI BIBLIOTEKA” 15:45 Paperezko hegoak (DBH 1-2)
16	“HERRI BIBLIOTEKA” 17:00 Irakurketa kluba (Gloria Fuertes) 18:00 Irakusketa kluba (Antologia bat)
17	“HERRI BIBLIOTEKA” 10:00-11:00 XL Kluba 17:00-19:00 Paperezko hegoak (LH 3-4 mailak) 19:00-20:00 Paperezko hegoak (LH 5-6 mailak)



'5' magia gala egongo da ikusgai San Agustin kultur gunean.

Urriaren 17an

ELORRIO jardunaldia
‘Elorrioko landa eremuko emakumeon topaketa’
17:30ean, Lagunarte kofradian (Gazeta auzoan).

DURANGO hitzaldia
Atzeritartasunari buruzko informazio saioa, 18:30ean, Elkartegian.

Urriaren 12tik 21era

DURANGO erakusketa
San Fausto auzoko argazki erakusketa, San Faustoko frontoian.

Urriaren 26ra arte

BERRIZ erakusketa
Sergio Saezen argazki erakusketa, Kultur Etxean.

Zine- ma

:: Durango ZUGAZA

• **La Casa del Reloj en la Pared**

barikua **12:** 21:15
zapateria **13:** 20:15/22:30
domenea **14:** 18:00
astelehena **15:** 18:00
martitzena **16:** 20:00

• **La Casa del Reloj en la pared (euskaraz)**

barikua **12:** 19:00
zapateria **13:** 18:00
domenea **14:** 20:30
eguzartena **17:** 20:00

• **La sombra de la Ley**

barikua **12:** 18:00/20:15
zapateria **13:** 17:00/19:130/22:30
domenea **14:** 19:30/20:30
astelehena **15:** 18:30/21:00
martitzena **16:** 20:00
eguzartena **17:** 20:00

• **Smallfoot**

barikua **12:** 18:00
zapateria **13:** 17:00/22:30
domenea **14:** 17:00
astelehena **15:** 20:15
eguzartena **17:** 20:00

• **Smallfoot (euskaraz)**

barikua **12:** 20:30
zapateria **13:** 19:30
domenea **14:** 18:00
astelehena **15:** 18:00
martitzena **16:** 20:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **The Rider**

barikua **12:** 22:00
zapateria **13:** 22:00
domenea **14:** 20:00

“Energia berezi bat biltzen du liburuak; bederatzi ataletan banatuta dago, eta infinituaren zenbakia da hori”

Poema sorta berriagaz, bigarren liburua kaleratu du berriki Garain bizi den Koro Benitezek; 'Vagabunda' deitzen da autoeditatu duen liburua



**Koro Benito
García**

Poeta
Lumbrales | 1965

Autoedizioaren bidetik ekin diozu oraingo honetan ere?

¿Seré arcoíris algún día? liburuagaz bide tradizionala jorratzeko asmoa nuen hasiera batean. 40-50 argitaletxek baztertu egin zuten publikatzeko aukera, ez zegoe-lako euren ildoagaz batera, eta nire kabuz egitea erabaki nuen. Oraingo honetan ere horrela egin dut, baina banaketaz Forjadores de Sueños arduratzen da. Aurkezpen eta azoketara ere laguntzen didate, eta web orrialdea dutenez, asko laguntzen didate ezagutzera emateko. Autoedizioaren alderik onena, guztiari buruz erabakitzen duzula da: liburuak izango duen letra mota, ilustrazioak, azala... gastuak zure gain hartzea tokatzen zaizu, eta buelta asko eman behar dituzu liburua ezagutarazteko eta saltzeko, baina, lan horrek ez nau beldurtzen. Are gehiago, lanak zortea ere badakar.

Beraz, orain aurkezpenak egitea tokatuko zaizu.

Bai, hala da. Garaikoaz gainera, urrian Madrilera noa, Vagabunda azoka batean aurkeztera. Bilbon aurkeztuko dut azaroan, eta abenduan, oster, Bartzelonara noa. Horiez gainera, oraindik guztiz itxita ez ditudan beste aurkezpen batzuk ditut hitzartuta.

Poesia bakarrik idazten duzu?

Batez ere, poesia idazten dut. Baitut kontakizun batzuk idatzita, baina, oraindik behintzat, gordeta ditut.

Errexitatu ere egiten duzu.

Bai, oso gustuko dut, eta aspalditik egiten dut. Orain denbora asko, lagun batek errexitatzea proposatu zidan, eta oso urduri nengoen arren, asko gustatu zitzaidan errexitatzerakoan sentituzko adrenalina. Ordutik, askotan egin dut. Gaztetan ere, idazten nituen poesiak zintan grabatzen nituen, irratikasete batez. Niretzat, idaztea eta errexitatzea batera doaz, poema irakurtzean ulertu ez duen pertsona batek entzuterakoan ulertu dezakeelako.

Non erosi ahalko da liburua?

Urrikeri eta Hitz liburutegietan, eta Forjadores de Sueñosen webgunean. Nik neuk ere saltzen ditut zuzenean.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Lumbralen (Salamanca, Espainia) jaio zen Koro Benito, eta zenbait urtez Durangon bizi ostean, Garain bizi da gaur egun. 2016an '¿Seré arcoíris algún día?' kaleratu ostean, poema sorta berri bat kaleratu du berriki: 'Vagabunda'. Aurkezpen eta errexitaldiak eskaintzen ari da Benito orain, buru-belarri. Urriaren 7an egin zuen lehenbizikoa, Pilar Zubiaurre idazle garaitarra jaio zen etxearen parean, hain zuzen ere.

Nola dago egituratuta poema sorta hau?

Bederatzi ataletan banatuta dago liburua. Bederatzia infinituaren zenbakia da, eta, horrez gainera, tarotean ermitauaren karta da bederatzigarrena, eta ermitauaren esanahietako bat da Vagabunda. Energia berezi bat biltzen du liburuak. Azala, adibidez, William Blake poeta eta ilustratzailearen irudietan oinarritua dago; Mikel

Gomezek egin du. Poemaz gainera, liburuan ilustrazioak ere badaude, Gomezenak baita ere, eta geometria sakratuen eta errunen arteko berrinterpretazio bat dira.

Hau guztia argi zenuen hasieratik, ala idatzi ahala erabaki duzu?

Ahal dudana heinean idazten dut. Nahikoa material bildu dudala ikusterakoan, publikatu egiten dut, eta, horretarako, forma ematen diot; azala eta bestelako detaileak nolakoak izango diren pentsatzen hasten naiz. Astiro doan prozesu

bat da. Sorta honetako poemak, adibidez, ¿Seré arcoíris algún día? idatzi ostekoak dira.

Noiztik idatzen duzu?

Hamabost urte nituenetik hogeia eduki nituen arte asko idatzi nuen. Baina lan horietako asko galdu egin nituen etxer aldatzerakoan. Gero, idazteari utzi nion. Ile-apaintzailea naiz ogibidez, eta horrek denbora asko kendu izan dit. Hogeia urtedo egon naiz batere idatzi barik. Orain sei urte inguru, olerki bat etorri zitzaidan burura, eta ia bat-batean idatzi nuen. Hor berriro hasi nintzen idazten. Ahoan arazo bat eduki nuen, eta ez nuen lortzen sendagaiekin soilik konpontzea; terapia alternatiboan bila hasi nintzen. Hor aldaketa bat sumatu nuen nire baitan, eta idazten hasi nintzen berriro. Eta oso pozik nago orain. Bizitza bakarrean hainbat bizitza daudela uste dut nik, eta idaztea bazterreratuta nuen arren, hor egon da beti. Orain berreskuratzen ari naiz.

“Orain sei urte, olerki bat bururatu eta bat-batean idatzi nuen; hor berriro hasi nintzen idazten”

Koro Benitez 'Vagabunda' liburuaren ale batez.

Lehenbiziko poema sortatik bigarren honetara, zein garapen eduki duzu idazle moduan?

Orain zorrotzagoa naiz neure buruagaz. Esan gura dudana gaur bat datorren berba topatzen saiatzen naz. Idazterakoan, baina, nahiko irregularra naiz. Eta ez dakit hori ona ala txarra den. Idazten dudana gaur irakurlearengana heltzen saiatzen naiz, metrika zaintzeaz baino gehiago, adibidez. Errailetatik idazten dut. Ez dut gura gehiago idatzi, inspirazioa datorkidanean idazten dut.

“Urrikeri eta Hitz liburutegietan, eta Forjadores de Sueñosen webgunean salduko ditut liburuak”

Luna Dangelis eta Deiak youtuberrek Mangamoren hartuko dute parte

Urriaren 12tik 14ra izango da kultura japoniarraren jaialdia; iaz, 14.000 zale bildu zituen



Taiko kontzertua eta tailerrak egongo dira.

MANGAMORE • ARITZ MALDONADO

Luna Dangelis eta Deiak youtuber ezagunak izango dira 12. Manga-moreko izar nagusiak; 1.500.000 eta 800.000 jarraitzaile dituzte hurrenez hurren. Domekan, hilak 14, Amorebieta IV pilotalekuan egingo duten fan meetingean entzun ahalko zaie, 13:00etan. Bestalde, Behotsik Bilbao Orkestrak eta Onigiri Cosplay Ani-Son Stage taldeek kontzertua eskainiko dute. Zwei rock talde

Zwei rock talde japoniarrak kontzertua eskainiko du barikuan, 19:45ean

Zazpi gune ditu Mangamoren; aurten, lehenbizikoz foodtrucken gunea bisitatu ahalko da

japoniarrak ere emanaldia eskainiko du. Laugarren urtez, quidditch txapelketa ere egingo dute.

Urteekin hazten joan da kultura japoniarrari buruzko jaialdia, eta, aurtengoan, 7 gune egongo dira. Nobedade moduan, sei foodtruck ezarriko dituzte gune berri batean. Horietako lauk janari japoniarra eskainiko dute.

Geure Durangaldea

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Arte eta Historia museoa



E(rre)BOLUZIOA

Nerabeak ginenean arratsaldeko lauretan batzen ginen zapaturo leku berean. Etor-tzen zirenak elkartzen ginen, eta baten bat agertzen ez bazen, ez zen ezer gertatzen. Ez genuen mugikorrik, asko jota gurasoenera deitzen genuen (eta buruz ikasten genituen guztion telefono zenbakiak). Ez dira hainbeste urte pasatu, eta, hala ere, gaur egungo bizimoduarekin ez dauka zerikusirik.

Gaurko gaztetxoek uneoro daramate mugikorra soinean. Elkarrekin geratzeko derrigorrezkoa da etxetik irten aurretik hala adieraztea aplikazio batean edo bestean.

Bizitza aldatzen doa eten-gabe. Batzuetan ez gara ohartu ere egiten, gauza naturaltzat hartzen ditugu bizitzeko era eta jokaera berriak. Aurretik bizi izan duguna zalantzan jartzen.

Hala ere, noizbehinka aurrerapenak edo berrikuntzak ez dira era berean onartzen. Batzuei berritasunak beldurra ematen dielako: "Hezkuntza eredu berritzaile bat? Ez, eskerrik asko! Lege eguneratuak? Zertarako? Parekidetasuna? Ezinezkoa!" Eskerrak zenbaitetan aldaketa era normalean hartzen diren; izan ere, azken urteetan ikusi izan dugunez, neskek zuriz jantzita egiten dute dantzan plazan. Tradizioari jarraituz, eboluzionatu daitekeela adieraziz. Aupa zuek!

Kanbioa naturala da, bizitza eboluzionatzen doa eta berarekin batera, gizartea. Batzuetan aldaketa berez heldu da eta besteetan gizartearen bultzada txiki bat behar du; erreboluzioa beharrezkoa izaten da. Ez diezaiongun beldurrik izan.

Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek Santurtzin ekingo dio Bizkaiko txapelaren lehiari

Garikoitz Sarriugartek laugarren amaitu zuen lehenbiziko kanporaketan; Gernikako Lizeo Antzokian abestu zuen

BERTSOLARITZA • A.M.

Hasi da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udagoienerako fasea. Bigarren kanporaketa urriaren 14an jokatuko dute, eta Eneko Abasolo 'Abarkas' bertsolari iurretarrak abestuko du bertan. Domekako saioa Santurtziko Serantes aretoan izango da, 17:00etan. Iurretarra Arrate Illarogaz, Ekaitz Larrazabalegaz, Imanol Arrutiagaz, Iñaki

Iturriotzegaz eta Malen Amenabarregaz lehiatuko da.

Sarriugarte, laugarren

Udagoienerako faseko lehenengo kanporaketan Garikoitz Sarriugarte zaldibartarrak abestu zuen; laugarren amaitu zuen saioa. Imanol Albizurik lortu zuen punturik gehien, eta zuzenean sailkatu zen finalurrekoetara.



Sarriugarte atzean, erdian, Gernikako saioan.

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxea@plateruena.net

Azaroak 23 · 21:30ean

PUB QUIZ

5. Magia ikuskizun desberdina
Magia gala

Urriak 12, barikua
19:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

“Trinketean aurrean aritzea futbolean atezaina izatea lakoa da; sarea zaindu behar duzu”

Trinketean eta frontoi luzean irabazita dituen Euskal Herriko txapelei, baliokidea den beste bat gehitu gura die Aitor Arabiourrutia abadiñarrak bote luzeko modalitatekoa irabazita



Aitor Arabiourrutia Obregon
Bote Luzeko torneoan Bizkaia taldeko pilotaria
Abadiño | 1991

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Finala joan zen zapatuan jokatzekoa zen, Oiartzunen. Bizkaia eta Gipuzkoa, aurrez aurre. Hasi eta berehala, partidua bertan behera utzi zuten, euriagatik. Bizkaiko boskotean, bi eskualdekoak ziren: Egoitz Amantegi eta Aitor Arabiourrutia.

Euriagaz ezinezko bihurtzen da bote luzean jokatzeko?

Hasieran zirimia egin zuen eta, tira, jokatu zitekeen, baina gero euri asko bota zuen eta pilota geratu egiten zen putzuetan. Lesionatzeko arriskua ere bazegoen. Azkenean, denon artean erabaki genuen gera-

tzea. Seguruenik, azaroaren 1ean jokatuko dugu.

Partidua hasiberri zegoen. Zelako itxura hartu zenion talde gipuzkoarri?

Jokoaren pisurik handiena atzelariek hartzen dute eta talde bieta-koek antzeko maila dute. Beraz,

nork duen egunik onena, nork konfiantzarik handiena... hortxe egon daiteke gakoa.

Bizkaia laz batu zen bote luzeko txapelketara. Zu zerk animatu zintuen parte hartzera?

Lehenengoz probatu genuenean, "Hau zer da?" pentsatu genuen. Arau asko ditu, aldagai asko, eta ez da erraza ulertzeko. Nik oraindino ere galdetu egin behar izaten dut noizean behin. Hala ere, hasierako egun horiek kenduta, gerora nahiko gustura sentitu naiz. Laz partidu bat jokatu nuen eta aurten gehiago jokatzeko aukera izan dut.

Lehenengo parte hartzean txapela irabazi zuen Bizkaia, eta aurten berriro finalera.

Iazkoa ez genuen espero. Dibertitzeko helburuagaz hasi ginen eta, apurka, talde ona genuela eta irabazteko aukerak genituela konturatu ginen.

Dibertsioa presio bihurtu da?

Iaz irabazita, ematen du aurten ez irabaztea porrota izan daitekeela, baina kontuan hartu behar da aurkariak guk baino esperientzia handiagoa dutela modalitate honetan eta ez dela erreza.

Frontoi luzean zein trinketean, Euskal Herriko txapela irabazitakoa zara. Zein modalitatetan zaude gusturen?

Askotan egin didaten galdera da. Trinketea eta frontoia bateragarriak dira niretzat. Beste askorentzat ez, ostera. Trinketean ikasitako gauza askok balio izan didate frontoian. Bietatik zein aukeratuko nuen? Ez dakit, ba. Trinketean jende gutxi gaude, betikoak gara. Aurkari berrien pizgarriak ez egoteak, frontoirantz tiratu zaitzake. Baina,

joko moduan, nik gehiago gozatzen dut trinketean.

Zer irakatsi dizu trinketeak?

Beti esan dut trinketean aurrean jokatzeko defendatzen erakusten dizula. Bote laster asko, boleaz asko... Futboleko atezaina izatea lakoa da; sarea defendatu behar duzu. Erreflexuak lantzen dira.

Irabazi duzun txapelketetatik, zein izan da bereziarena?

Denak dira bereziak, baina utziz dazui irabazi ez dudana txapelketa bat bereizten: Elgetako lau t'erdikoa. Orain ez da jokutzen. Urtero jokatzeko irrikan egoten nintzen txapelketa da. Fama handia zuen, lau t'erdia beti gustatu izan zait, giro berezia egoten zen... Ez dakit, konexio berezi bat nuen txapelketa haregaz eta amaitu zenean pena handia hartu nuen. Urte batean, final-laurdenetara edo zortzirenetara heldu eta Danel Elezkanok kanporatu ninduen.

Elezkanok Irribarria kanporatu berri du lau t'erdiko txapelketan. Aramaiko izarrari zeuk ere irabazi zenion behin kaioan.

Bai, curriculumean jartzeko daukadan garaipena da. Lagunei-eta, beti anekdota horixe kontatzen diet, broman. Olazar txapelketa izan zen, orain lau-bost urte. Ez zen izan txapelketako partidua, lagunartekoa baizik. Aitor Elordiren kontra jokatu nuela esan zidaten. Bertaratu eta... Irribarria. Gazte-gaztea zen, baina bazuen izena. Nik bost urte gehiago nituen. Bera eskuko lesio batetik irten berria zen. Partidu gogorra izan zen eta 22-18 irabazi nion. Gogoan dut eskumagaz zein ezkerragaz atera zituela sakeak. Partidu parekatua izan zen.

Titin III.ak Angel Sautoren oroimenez antolatutako jaialdian jokatu du

Abuztuan hil zen Durangoko pilota eskolaren alde hainbeste lan egin zuen Sauto, eta oso Titinzalea zen



Sauto eibartarra zen jaiotzez, baina San Fausto auzoan bizi izan zen urte askoan.

PILOTA • J.D.

Angel Sauto abuztuan hil zen, eta Durangoko pilota eskolan beste inork bete ezingo duen hutsunea utzi du. 44 urtean zehar umetxoan entrenatzaile, juntakide eta presidente izan zen. Denetik egin zuen. "Dena musutruk egiten zuen, pilota maite zuelako", gogoratu du gaur egun pilota eskolaren ardura daraman Txaber Zabalak.

Horregatik, barikurako bere oroimenezko jaialdia antolatu dute San Faustoko pilotalekuan, "bere bigarren etxean", Zabalarren esanetan. Jaialdiko partidu nagusira Titin III.a ekartzea lortu dute, Titinzale "amorratua" zelako. Pilotari errioxarrak Txaber Zabalgaz osatuko du bikotea. Unai Agirrezabal durangarra eta Ander Olalde mallabitarra izango dituzte aurkari. Agirrezabalek Sautogaz eman zituen lehenengo pilotakadak umetan, eta Olalde urte asko daramatza Durangoko pilota eskolan. Jaialdia 10:30ean hasiko da, umeen eta beteranoen —Sautoren lagunak— partidu banagaz.

Sagardoyk ohorezko sakea egingo du Kulturalaren partiduan

Barakaldoren kontrako lehiaren atarian, aktore durangarraren lorpenei errekonozimendua egin gura diete

FUTBOLA • J.D.

Durangoko Kulturalak eta Barakaldok bihar 12:00etan Tabiran jokatu duen partiduen atarian, Eneko Sagardoy aktore durangarrak ohorezko sakea egingo du. *Handia* filmagaz lortutakoa aitortu gura diote klubetik. Ondo-

ren, urteko lehenengo garaipena lortzen saiatuko da Kulturala. Bigarren B Mailako liga hasiera gogorra egiten ari zaio, eta azkenengo dago jokatu duen zazpi partiduetatik bost galduta. Barakaldo, ostera, hirugarren tokian eta igoe- ra postuan dago.



Bihar Tabiran izango da hitzordua, 12:00etan.

Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa 2018

Aurten, lanak
aurkezteko
bi era dituzu:
**idazlan edo
bideo bidez;
zuk aukeratu!**

Idazlan bidez, oinarriak

ikusi eta lanak bidaltzeko, sartu:

Berria.eus/mendietabidaiakronika2018

Bideo bidez, oinarriak:

- Aurkezten diren bideoek originalak eta argitaragabeak izan behar dute.
- Bideo bakoitzak gutxienez **5** minutu eta gehienez **20** minutu izan beharko du.
- Bideoek euskarazkoak izan beharko dute. Euskaraz ez den edukirik balego, euskarazko azpidatziak izan beharko ditu.
- Bideoak online sistema bidez (tori.eus edo wetransfer.com) bidali behar dira bideoak@berria.eus helbidera, **azaroaren 11 baino lehen**. Gaia: Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa.
- Bideoarekin batera, hauek ere bidali beharko dizkiguzue:
 - Bideoaren fotograma bat .jpeg formatuan
 - Izenburua
 - Sinopsia edo laburpena
 - Egilearen izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa.
 - Baloratuko da:
 - Kalitate artistikoa
 - Gidoiaren originaltasuna
 - Edizio lanketa
- Jasotako bideoak **BERRIAren** Youtubeko kanalean jarriko dira, eta BERRIAren webgunean publikatuko. Bideoa egin duenak izango du bidalitako lanaren edukaren ardura.
- BERRIAk eskumena izango du lanak lehiaketatik kanpo uzteko; lehiaketatik kanpo utzi ahal izango ditu mezu iraingarriak, giza eskubideak urratzen dituztenak edo sexistak darabiltzaten bideoak.
- Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia betez, parte hartzaileari jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak EUSKAL EDITOREA SL enpresaren tratamendu sistemetan jasoko direla, horixe baita Tratamenduaren Erantzulea. Hala, parte hartutako lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira, soilik.

SARIA-Idazlana:

Irabazlearentzat, Mendiak eta Herriak mendi gidari elkartearen oparia, lagun batentzat.

ZERMATT INGURUKO GOI MENDIKO ZEHARKALDIA

Breithorn (4.165 m) • Castor (4.226 m) • Parrotzspitze (4.436 m) • Zumsteinspitze (4.563 m)

EGITARAUA:

1. Alpeetarako bidaia. Norbere autoan. Gaba Saas Grund herrian, Suitza. Mantenu erdia.
2. Theodul aterpea (3.200 m). Saas Grund – Tasch, gure autoan. Tasch – Zermatt, taxiz. Teleferikoa Zermatt – Trockener Stegg (2.700 m). Trockener / Rifugio Theodul (3.200 m), Theodul glaziarrean barna, 1.30 ordu. Mantenu erdia.
3. Breithorn (4.165 m eta 4.160 m). Theodul / Breithorn lepoa, 1.30 ordu. Breithorn lepoa / Breithorn (4.165 m eta 4.160 m), bi gailurren arteko zeharkaldia eginez. Guida Val d'Ayas aterpera (3.200 m). Mantenu erdia.
4. Castor (4.226 m). Val d'Ayas / Castor (4.226 m), 4 ordu. Castor gailurra / Quintino Sella aterpea (3.400 m). Bi ordu. Mantenu erdia.
5. Parrotzspitze (4.436 m). Quintino Sella aterpea / Liskjoch lepoa / Ludwigshöhe (4.341 m), Parrotzspitze (4.436 m) gailurrak. Punta Gnifetti —4.556 metrora igoko gara, non Margerita aterpea dagoen, Alpeetako aterperik altuena—. Mantenu erdia.
6. Zumsteinspitze (4.563 m). Margerita / Zumsteinspitze (4.563 m), ordu bat. Greengletscher glaziarretik behera egingo dugu, Mte Rosa aterperaino (2.800 m). Mantenu erdia.
7. Zermatt eta Saas Grunderako itzulera. Mte Rosa aterpea / Greengletscher glaziarra / Rottenboden tren geltokirako iguera. Trenez Zermattera. Zermatt – Tasch – Saas Grund
8. Etxerako itzulera

SARIA-Bideoa:

Irabazlearentzat, ATXASPI HOTELEAN **Relax asteburu-pasa, bi lagunentzat**.

Parte hartzale guztien artean, APALATEGI KIROLAK dendan gastatzeko 100 euroko 3 bonu.

BABESLEAK:



ATXASPI HOTELA



APALATEGUI
DEPORTESAPALATEGUI.COM

Gurutze Frades iurretarra gogotsu eta sasoi betean Konako munduko triatloi txapelketaren atarian

Ironman distantzian jokatu den munduko triatloi txapelketa zapatuan hasiko da, 18:40an —Euskal Herriko ordua—

TRIATLOIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gurutze Fradesek munduko triatloi txapelketa lehiatuko du zapatuan Konan, Ironman distantzian. 18:40an —Euskal Herriko ordua— hasiko da proba. Iurretarra hiru-garrenez izango da Hawaiin. Lehenengoz, 2016an parte hartu zuen munduko Ironman txapelketan, eta 33. postuan helmugaratu zen. Iaz, 22. sailkatu zen.

Aurtengo txapelketa prestatzeko, Frades urri hasieratik dago Konan, entrenatzen eta hango giroa egiten. Horren aurretik, Sierra Nevada izan zen, entrenamendu "saio gogor bat" egiten.

Gurutze Fradesek jakitera eman duenez, sasoi betean heldu da aurtengo hitzordura. "Aurtengo munduko txapelketa oso ondo prestatu dut eta fisikoki oso ondo nagoela

uste dut", adierazi du Konatik triatleta iurretarrak. Hori horrela, proba egiteko desiratzen dagoela esan du.

Bestalde, bere kirol ibilbidean eboluzionatzen jarraitzen duela eta bilakaera horretan aurtengoa urte garrantzitsua izan dela dio.

Zita garrantzitsua

Konakoa urteko hitzordurik garrantzitsuenetakoa da eskualdeko triatletarentzat, eta, dioenez, berarentzat nahikoa litzateke "lasterketa on bat" egitea eta bere buruagaz "pozik geratzea". Horregaz konforme legokeela dio. "Nire helburua ez da postu konkretu bat lortzea, lasterketa on bat egitea baizik. Hala ere, badakit proba ona eginda postu ona lortuko dudala ziurrenik", amaitu du Fradesek.



Hirugarrenez munduko triatloi txapelketan izango da Frades.

Adituaren txokoa

Iñaki
Iza Zarazua
Pilotari ohia



Pilotarien egoerak

Lau t'erdiko txapelketaren final-laurdenen atarian gaude dagoeneko. Bertan zortzi onenak lehiatuko dira, baina pilotarien egoerak oso desberdinak dira euren artean. Aztertu ditzagun.

A multzoan Victor Estebanek eta Joseba Ezkurdiak elkarren aurka jokatu dute. Biak joko puntu onean eta moralez gainezka iritsi dira ligaxkara. Bestalde, Olaizola II.aren eta Altuna III.aren arteko partidua Jokinen erabakiaren zain jarraitzen du. Txapeldunak jokatu ezean, galera handia izango litzateke txapelketarentzat. Horren onuraduna Aimar izango litzateke. Azken urteotan pilotazaleek zalantzan jarri dute Olaizola II.aren txapelerako hautagaitza, "kaiolan" inoiz izan den espezialistarik handiena bera den arren.

B multzoari dagokionez, Elezkano II.aren eta Jakaren arteko partidua ere kolokan dago, Danelek Irribarriaren aurkako partiduan buruan jaso zuen kolpea dela-eta. Arnasa ondo hartu ezinik omen dago egunotan. Jaka, ordea, Arteaga II.aren aurka erraz irabazita iritsi da ligaxkara, baina lesio larri batetik irten berritan ikusteke dago bere maila zein den, batez ere, gehiago behartu dezakeen aurkari baten aurrean izango dela kontuan hartuta.

Mikel Urrutikoetxearena antzeko kasua izan daiteke. Birus batek jota, hiru hilabete inguru egin ditu kantxetatik kanpo eta itzuli denetik ezin izan du gorputzeko nekea guztiz kendu. Bengoetxearen kontra jokatu du eta Oinatzena bestelako egoera da. Enpresak inongo azalpenik eman gabe udako torneoetatik baztertu ondoren, ez dago inolako zalantzarik leizarra txapelketa gosez izango dela.

Asteko kirolaria

"Atezainak ez zuen oso ondo atera; baloia kontrolatu eta saiatzea erabaki nuen"

Baloia zelai erdian kontrolatu, handik gogor astindu eta sekulako gola sartu zuen

Markel Aperribay aurrelariak bere ibilbideko golik onenetakoa sartu zuen joan zen asteburuan. Bere habitat naturala den areatik urrun, zelai erdian baloia kontrolatu, atezaina aurreratuta ikusi eta bertatik sare barrura bidali zuen. Hiru partidutan bigarren gola du. Abadiño futbol taldeak orain arte jokaturako hiru partidua irabazi ditu eta lider dago Lehenengo Erregionalean.

Kontaguzu: zelan sartu zenuen gol eder hori?

Bigarren zatia zen eta gure bigarren gola izan zen. Alboko sake bat atera genuen. Ni area ertzean nengoan. Erdiratu eta atezainak

hartu zuen baloia. Korrika atzerantz abiatu nintzen, kontraeraso posiblea defendatzeko. Atezainak ez zuen oso ondo atera eta baloia zelai erdian geratu zen, ezkerreko aldean. Baloia kontrolatu, atezaina aurreratuta ikusi eta saiatzea erabaki nuen.

Zure ibilbideko golik onena izan daiteke?

Tankera horretako bakarra bai behintzat. Politena? Ez ditut denak gogoratzen, baina politenetakoa, seguru.

Partidua 3-1 irabazi zenuten, aurkari gogor baten kontra. Mungia ordura arteko partidu biak irabazita zegoen, zuen moduan. Zelan joan zen Astolan jokaturako partidua?

Partidu hasieran, hamabosgarren minutu inguruan aurreratu ginen, alboko sake bati esker. Ondoren, eurek ez zuten arrisku aukerarik sortu. Uste dut geure meritua izan zela, ondo defendatu genuelako.

Zu aurten batu zara Abadiñora. Gustura zabilta?

Oso pozik nago. Gorka Moreno entrenatzaileagaz zein taldeko jokalariekin harreman ona daukat, eta pozik nabil. Iaz Erandion egon nintzen zati batean eta, gero, otsailetik udara, Bartzelonan egon nintzen bizitzen, hona bueltatu aurretik. Abadiñon lagunak ditut jokatzeko, eta, aurrerantzean, futbola horixe izatea gura dut




MARKEL
APERIBAY ETXEBARRIA

Abadiño futbol tadea
Durango, 1990

neuretzat: lagunekin egoteko eta gozatzeko kirola.

Zelakoa da taldea? Jende berri asko dago aurten?

Iazko jende askok jarraitzen du. Baja garrantzitsu batzuk egon dira, baina alta batzuk ere bai. Taldea ondo ikusten dut, sasiko. Denboraldia ondo hasi dugu eta hasiera onak garrantzitsuak izaten dira. Ea denboraldi amaieran goian ibiltzeko modurik daukagun. Gogor egingo dugu lan hala izan dadin.



TABIRA

Eguneko zentroa eta Egoitza
gerentzia berria

Intxaurrondo, 27 DURANGO
944 668 852 / 690 622 499

Hartu atsedenalditxo bat

www.cuidamosdetusmayores.com

- Zaintza eta zerbitzua adindunei •
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia •
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua •
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak •
- Terapia okupazionala •
- Aldi baterako egonaldiak •
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta •
- Zaintzailearen atsedena •
- Lan talde bikaina •

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

//ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN
DURANGO. Bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 750€-tik hasita.

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Eraikin berria. Logela bateko, biko, eta hiruko etxebizitzak salgai. **93.800.-€** hasita.

DURANGO. Oiz kalea. Hiru logelako pisu ederra. Igogailua eta gasa. Prezioa **120.000.-€**

DURANGO. Murueta Torre kalean. Pisu berri-berria, hiru logelakoa, komun bi, sukaldea eskegitokiagaz, egongela, garaje eta trasteroa

DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbararekin.

IURRETA. Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitzua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.

DURANGO. Montebideo kalean, logela biko pisua, bi komun, eskatza, terraza, garaje eta trasteroa, berria.

DURANGO. Hegoalde kalean, izugarritzko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobe.

BERRIZ. Etxebizitza guztiz berriztua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela,garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela,despentsa, sukaldea eskekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela,sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliari bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA. Izugarritzko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berriatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. B° Murgoitio. Bifamiliari ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobe, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

www.inmoetxetxo.com

DURANGO 3 logela 100 m²
MENDIZABAL Pisu handia, 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta terraza. Hegoaldera begira. Ganbara eta garajea.
260.000€

DURANGO 3 logela 2 komun 74 m²
SAN IGNACIO. Pisu altua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, eskekitokia, egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. Igerilekua aukeran.
195.000€

DURANGO 4 logela 126 m²
ALLUITZ-SASIKOA. 4 logela, 2 bainugela, sukaldea, office eskekitokiarekin eta egongela handia. Ganbara eta garaje itxia.
295.000€

ZALDIBAR 3 logela 92 m²
AUKERA. Erdigunean, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela terraza handiarekin, ganbara eta garaje handia.
140.000€ / Neg

DURANGO 3 logela 2 komun
SAN IGNACIO. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, eskekitokia, egongela handia, ganabra eta garajea. Eguzkitsua, hegoaldera begira.
260.000€

IURRETA 3 logela 1 komun
IURRETA. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta terraza.
100.000€

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 3 logela 2 komun
MARTXOAREN 8KO: 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, halfa eta balkoia. Dena hornituta eta egoera onean. Etxe guztia kanpora begira. Igogailua. Garajea eta ganbara.
256.000€

DURANGO 2 logela 1 komun 74 m²
SASIKOA: 74m2, 2 logela, egongela, sukalde-jangela, bainugela eta balkoia. Berogailua eta ura gas naturalarekin. Ganbara eta garaje itxia.
249.000€

DURANGO 4 logela 1 komun
ERRETENTZU: 93 m2, 4 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela bat eta balkoia. Igogailua eta berogailua.
190.000€

DURANGO 3 logela 80,07 m²
ASKATASUN ETORBIDEA: 80,07m2, 3 logela, egongela, sukaldea etabainugela. Igogailua. Hegoaldera begira.
180.000€

DURANGO 3 logela 1 komun
J. ANTONIO ABASOLO: 74m2, 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoia. GARAJEA AUKERAN 18.000 €
140.000€

DURANGO 3 logela 68,80 m²
IURRETA: 68,80 m2, 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoia. Eguzkitsua eta argi askorekin.
129.000€

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

//DURANGO
ALLUITZ KALEA 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. 134m2. **295.000 €** / E.E.Z =E

ANDRA MARI 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua. **250.000 €** / E.E.Z =F

ANBROSIO MEABE 3 logela, egongela, sukaldea balkoiagaz, bainugela 2, igogailua, kamarotea eta garaje itxia. **270.000** /E.E.Z=F

ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000** /E.E.Z=F

BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. **126.300 €** / E.E.Z= G

ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. LEHEN 210.000 € **ORAIN 190.000€** / E.E.Z=E

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. **205.000 €** / E.E.Z=E

EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. **321.500 €** / E.E.Z=F

KOMENTUKALE Logela 1., sukalde-egongela, bainugela, ganbara eta igogailua. **175.000EURO** /E.E.Z=F

KURUTZIAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **92.000 €** / E.E.Z Bidean

LANDAKO ETORBIDEA 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi, igogailua eta garajea. LEHEN 267.800 € **ORAIN 255.000€** / E.E.Z=E

MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ **ORAIN 260.000 €** / E.E.Z= E

MONTEVIDEO 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta, igogailua. **219.000€** E.E.Z= F

MURUETA TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **288.000 €** / E.E.Z=E

MURUETA-TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **290.000 €** / E.E.Z=E

PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. LEHEN 275.000 € / **ORAIN 260.000 €** / E.E.Z=E

SASIKOA 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, garajea eta ganbara. **220.000 €** / E.E.Z=G

ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **150.000 €** / E.E.Z = E

ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000 €** / E.E.Z= E

//ABADIÑO
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000 €** / E.E.Z Bidean

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **175.000 €** / E.E.Z=E

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **309.000 €** / E.E.Z= F

//BERRIZ
ANDIKONA AUZOA Berreraikitzeo baserria, **460.000€**

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. 120.000 € / E.E.Z= F

ELIZONDO AUZOA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. **142.000 €** / E.E.Z= G

OLAKUETA PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 2 balkoi. **135.000 €** / E.E.Z= G

//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. LEHEN 199.000 € / **ORAIN 189.000 €** / E.E.Z=E. Garaje itxia aukeran.

//IURRETA
ZUBIAURRE KALEA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **100.000** /E.E.Z=E

//OTXANDIO
GOMILAZ AUZOA Baserria lurzoruagaz, **350.000€**

//BERRIAK
IURRETA - AMILBURU MUSIKO PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta terraza **276.000 €** / E.E.Z= Bidean

BERRIZ - BERRIZBEITIA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta office **230.000 €** / E.E.Z= Bidean

//LURZORU ERAIKIGARRIA
SANTIKURUTZ KALEA Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeo 600m2ko lur-sorua. **640.000€**

Botikak

BARIKUA, 12 · 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 13 · 09:00-09:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-13:30
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 14 · 09:00-09:00
IRIGOIEN BIXENTE Kapanaga 3 - IURRETA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 15 · 09:00-09:00
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 16 · 09:00-09:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 17 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
EGUENA, 18 · 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Ekain (735. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Atzo **Aretxek** eta **Oierrek** bost urte bete zituzten. Zorionak etxekoan partez, bikote!



Zorionak, **Aunitz**. Urriaren 14an 8 urte jada! Jarraitu alai izaten eta egun zoragarrixe paseu opari askogaz eta etxekuekin.



Zorionak, **Malen**! Urriaren 14an 10 urte beteko dituzu. Ondo pasa zure egunean! Musu haundi bat etxekoan partez.



Urriaren 11n **Txomin**ek 5 urte beteko ditu. Zorionak etxeko guztien partez, asko maite zaitugu!



Zorionak, **Peru**! Astelehenean 9 urte bete zenduzen eta! Mosu potolo bat etxeko danen partez! Bereziki Nilen partez! Eta lurretatik belarri tirekada bat Anartzek!

Eguraldia

ZAPATUA 🌡 27° / 14° ☁	MARTITZENA 🌡 21° / 8° ☁
DOMEKA 🌡 15° / 11° ☁	EGUAZTENA 🌡 23° / 13° ☀
ASTELEHENA 🌡 15° / 8° ☁	EGUENA 🌡 22° / 14° ☀

katerin
ardoak

inaki
uribe



EGUNEKO MENUAK - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

94 621 79 02

anboto
komunikabideak

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak



HELDUENTZAT
ZER LUZEA NEGU HAU
Josu Goikoetxea
2018



UME ETA GAZTEENTZAT
ORGÍ ETA ZUHAITZ
Karen Hottols & Delphine Renon
2018



MUSIKA
OSPAKIZUN GAUEAN
Benito Lertxundi
2018

“Aitari begira ikasi dugu; bera izan da gure maisua”

Janaria burduntzian erretzen dute Asier eta Urko Garatek, aitarengandik ikasitakoari jarraituz. Sanfaustoetan, eurek erretako oilaskoa dastatzeko aukera eskainiko dute

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Asierrek, Urkok eta euren aitak, Angel Garatek, Euskal Herriko III. Burduntzi Txapelketan hartu zuten parte irailean. Hamaika parte-hartzaile izan ziren Hernanin jokatu zen txapelketan, eta Urkok ekarri zuen txapela etxera. Sanfaustoetan, anaia biek erretako oilaskoa dastatzeko aukera egongo da Txosnagunean. 700 pintxo banatuko dituzte, urriaren 12an.

Euskal Herriko burduntzi txapelketako txapela ekarri duzu etxera, Urko; oraingoan asmatu duzu.

Urko Garate: Bai! Egia esan, hiruron artean egin genuen beharra. Anaia biok eta aita elkarregaz aritu ginen. Bakoitzak bere bildotsa zaintzen du gehiago, baina denon txapela da.

Asier Garate: Berea da meritua. Berak aurkeztu zuen bildotsa, berak ebaki. Denon artean zaindu genituen, baina bildotsa bakoitzak aukeratu zuen. Urkok irabazi zuen **Non dago trukoa?**

U. G.: Dugun ezagutza aplikatzea. Lehenengo, bildotsa egiten uzten dugu, suabe-suabe, lau bat orduan, eta azken unean bizitu egiten dugu txingarra. Halaxe egiten dugu. Ez dago bestelako trukorik. Ekinean ikasi dugu. Begiz ikusten dugu bildotsa ondo dagoen eginda ala ez. Esperientziak erakusten du.

A. G.: Besteek legez, geuk ere botatzen diogu ‘edabea’, baina zenbat denbora behar duen jakin behar da eta, unearen arabera, txingar bizia edo motela behar duen. Aldagai asko daude eta esperientziagaz lotzen ditugu denak. Bestalde, okela desberdina da neguan edo udan, dagoen tenperatura edo haizea hartu behar da kontuan... ez dago formula bat, gure esperientzia da formula.

Hamaika parte-hartzaile izan zineten, erdia baino gehiago bizkaitarrak.

A.G.: Bai, sei bizkaitar izan ginen. Denak durangarrak. Ordezkaritza handia da.

U.G.: Zaletasun handia dago Durangon.

Nondik datorkizue zaletasuna?

U.G.: Aitarengandik. Oso zalea izan da umetatik eta, ekinean, zaletasuna ofizio bihurtu du. Amarenean, baserrian, askotan erre dugu bildotsa burduntzian. Aitari begira ikasi dugu. Bera izan da gure maisua.

A.G.: Aitari ikasi diogu burduntzian erretzen, eta, batez ere, bildotsa janda. Horrela, bada-kigu nola dagoen. Epaila lana egin behar da lehenengo, eta gero ekin. Aita umetatik ikusi dugu bildotsa erretzen, eta ikasten joan gara.

Gaztetxo hasi zineten...

U.G.: Txahala erretzen, 14-15 bat urte-gaz. Gero, oilaskoa. Askotan pentsatu dugu ea nolatan gabiltzan honetan... Gurasoei laguntzen hasi ginen eta hemen gaude.

A.G.: Eskua hartzen joan gara

apurka, eta, gero eta eskari gehiago hartzen: bildotsa, txerria, oilaskoa, hanburgesak, pottoka...

Alde handia dago bat edo bestea erretzeko orduan?



Asier (1987) eta Urko (1989) Garate Arellano Durango |

Janaria burduntzian erretzen dute

U.G.: Bai. Ordu kopuruan batez ere. 12 ordu behar dira txahala erretzeko. Aurreko prestaketa eta osteko banaketa eta garbiketa lanak gehitu behar. Txerria erretzeko, 10 ordu behar dira, eta bildotsa erretzeko, lau. Bakoitzak bere sekretuak ditu.

A.G.: Bildotsa plater oso berezi lez hartzen da. Gabonetarako, adibidez. Baina guri txahala gustatzen zaigu gehien; niri, oilaskoa ere bai. Baina oso gozo geratzen dira denak brasen.

Jailetan oilasko erre eskainiko duzue.

U.G.: Bai. 700 pintxo banatuko ditugu, ea giroa berotzen dugun.

Baduzue lana...

A.G.: Gainera, beste herri batzuetan azoka garaia ere bada hau, eta lan asko izaten dugu.

Gustuko dugu burduntzian erretakoa?

U.G.: Bai, etorri zaizkigu gozo dagoela esanez, ondo prestatuta dagoela. Eskertzekoa da, lan gogorra da-eta.

Lauhortza

Uxune Martinez Mazaga Soziologoa



First Certificate euskaldunontzat

Aurten ere ez dut izan San Sebastian International Film Festival-era joatearik. Pena, beste baterako. Hala ere, ez dut galtzen esperantza eta ea Bilbao Exhibition Centre-n izango den Europe Music Awards-era joateko gonbidapenik lortzen dudana. Lan kontuak direla, eta adina ere, aitortu beharra dago Bizkaia Silver Week-en ikusle moduan egon naizela eta ekintzailea sentitzen naizenez oraindino, Biscay Star Up Campus-era joan nintzen, nire ideiek bideragarritasunik duten ikusteko.

Hamaika kontu interesgarri ezagutu nituen bertan: Biscay Marine Energy Platform, Basque Cybersecurity Centre, Basque Culinary Center, Basque Center on Cognition, Brain and Language..., denak Basque. Beraz, primeran.

Asteburuan planak egiteko orduan erabaki ezinik ibili naiz: 2012an European Green Capital izan zen Gasteizera joan, slow city-a den Lekeitio bisitatu edota The 2018 European City of the Year den Bilbora joan. Azkenean, Basque Ultra Trail Series zirkuituko proba bat ikustera animatu ginen.

Ez da erraza basque boomer woman bat izatea. Badakizue, baby boom aroan jaio nintzen eta horrek arrastoak utzi dizkit. Baina ez dizuet egingo nire bizitzaren spoiler bat, ezta gogoko dudana abestiaren cover-a ere.

Egun hamaika zalantza ditut eta bat da nagusi: zer izan, ahobizi ala belarriprest? Erabaki bat hartu beharrean nago, baina zer nahi duzue esatea, dirudienez euskaldunok premiazkoagoa dugu First Certificate ateratzeko bideak urratzea, Basque Country-n murgilduta baikaude. Bye!

EUSKARALDIA DURANGALDEAN

11 egun euskaraz

AZAROAREN 23tik ABENDUAREN 3ra